



## Bertso-ipuina bat zuretzat Maitasunez kantatzeko bertso-ipuina

### Zer da?

BERTSO-IPUINA BAT ZURETZAT egitasmoak zaintza aringarrietan dauden haurrentzako bertso-ipuina eskaintzen ditu. Borondatezko bertsolari eta kideek osatutako taldeak bideratzen du egitasmoa.

Haurarentzat bereziki sortutako bertso-ipuina eskaintzen dugu, haurari berari eta/edo familiari galdetutako elementuen bidez sortuz. Bertso-ipuina bidez haurra erdigunean jarri eta garrantzitsua dela adierazteko modu bat eskaini nahi dugu, berarentzat bereziki egindako kantuarekin.

Hauraren familiari eta lagunei maitasuna adierazteko aukerak eskaini nahi dira, berarentzat sortutako bertso-ipuina bidez.

### Nola?

Egitasmoa kide bat haurarekin eta/edo familiarekin (gurusoak eta anai-arrebak) egongo da bertso-ipuina sortzeko elementuak biltzeko. COVID-19 osasun krisiari egokituta, bideo-dei edo telefono deia bidez egingo da harreman hau. Kide honek egitasmoan parte hartzen duen bertsolari taldeari emango dizkio elementu hauek bertso-ipuina sortu dezaten, eta behin sortuta, familiari helaraziko dio bertso-ipuina idatziz eta dagokion doinuarekin. Haurarentzat bereziki sortutako bertso-ipuina kantatzeko aukerak hainbat izan daitezke: aurrez-aurre, grabatutako bideoan, familia kantatuta edo bere lagunek,...

### Non?

Euskal Herri osoan zehar zaintza aringarrietan dauden haur guztiei zuzendutako egitasmoa da. Haurarengana heltzeko COVID-19 egoerak jarritako segurtasun neurriak eta familiaren beharrak zainduko dira.

---

BERTSO IPUINA BAT ZURETZAT egitasmoa Hil Argi Elkarteak bideratzen du eta oinarri hauek ditu:

- **Intimitatea:** Protagonista bakarra haurra da eta egitasmoa intimitate horretan ardatzuko da.
- **Bizitzari kantua:** Bertso-ipuina, bizitzari egindako kantua da, hauraren omenez.
- **Borondatea:** Kultur sorkuntzak beste edozein lan bezala ordainduak izan behar diren arren, egitasmo honek parte hartzaileen borondatezko eskaintza du oinarri.



Informazio gehiago jaso edo edozein galdera argitzeko,  
jarri gurekin harremanetan:  
[hilargi@hilargi.eus](mailto:hilargi@hilargi.eus)  
+34 644 357 368